

2017ko

Hiri udalekuak

BARAKALDO



NOBEDADEA
JANTOKIA

Barakaldo
CIUDAD • HIRIA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Datak, lekuak eta adinak

Hainbat hiri udaleku eskainiko zaizkie, **jantokia barne**, uztailean zehar 2005etik 2013ra bitartean jaiotako umeak dituzten Barakaldon erroldatutako familiei.

1. txanda: Uztailak 3-14 (10 egun)

1 aldea. Gurutzeta

PK: Juan Ramón Jiménez HI
90 toki.

2 aldea. Barakaldo

PK El Pilar HI - 110 toki
PK Larrea HI - 110 toki
PK Alkartu - 110 toki.

2. txanda: Uztailaren 17tik 28ra

9 egun; 25a izan ezik, jaieguna da eta.

1 aldea. Gurutzeta

PK Juan Ramón Jiménez HI
70 toki.

2 aldea. Barakaldo

PK Alkartu - 110 toki.

Txanda bien aukera egin daiteke, baldin eta familiak bere umea udalekuen txanda bietara bidali nahi badu.

Eskertuko genuke, aukera hori benetan erabiliko dutenek bakarrik egingo balute eskaria. Kasu horretan, izena emateko fitxa bakarria bete beharko dute, eta txanda biak adierazi.

Izena emateko fitxan, lehenetsitako zentroa adieraz daiteke. Bigarren txandan ikastegi bi baino ez dira eskaintzen, alde bakoitzean bat, beraz, familia batek lehenengo txandan aukera dezake, adibidez, El Pilar, eta bigarrenean, berriz, Alkartu.

Antolakuntza arrazoiak direla tartean, eskaintako zentroak alda daitezke.

Ordutegia

Kolonia bakoitza astegunez garatuko da, larunbata eta igandea sartu gabe, goizeko 9:00etatik 15:00etara.

Irteera-sarrera ordutegiak, honako hauek izango dira: 8:30etik 9:00etara, eta 15:00etatik 15:30era.

Hizkuntza

Euskara Hala ere, euskara maila ez da baldintza erabakigarria izango.

Izena emateko epea

Maiatzaren 16ra arte. Epe horretatik kanpo izena eman dutenak itxaron zerrendan garatuko dira.

Izena emateko lekua

Barakaldoko kultur etxeetan

(Burtzeña, Gurutzeta, Retuerto, Zuhatsu eta Clara Campoamor), ohiko ordutegian.

Gaztebulegoan

(San Juan kalea), ohiko ordutegian.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan

(Barakaldoko Udala), ohiko ordutegian.

Prezioa

Hileko diru-sarreraren araberako tartean.

1. tartea: 0-786,39 € eta/edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familiak eta/edo GETeko programan parte hartzen duten adingabeak:

1. txanda: 11 € / **2. txanda:** 9,90 €

2. tartea: 786,40tik 869,90ra:

1. txanda: 22 € / **2. txanda:** 19,80 €

3. tartea: 869,91tik 956,02ra:

1. txanda: 32 € / **2. txanda:** 28,80 €

4. tartea: 956,03tik 1.050,67ra:

1. txanda: 72 € / **2. txanda:** 64,80 €

5. tartea: 1.050,68tik 1.154,69ra:

1. txanda: 101,10 € / **2. txanda:** 90,99 €

6. tartea: 1.154,70€tik gora:

1. txanda: 144 € / **2. txanda:** 129,60 €

Azken tartean daudenek izan ezik, beste guztiak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera: familia unitateko kide guztien 2015eko errenta aitortpena eta/edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzailea dela adierazten duen Lanbideren agiria, eta/edo adingabeak GETeko udal programan parte hartzen duela egiaztatze taldeko koordinatzaileak egingo dako ziurtagiria.

Tarteak kalkulatzeko, baterako aitortpenak badira, likidazio-oinarri orokorra zati 14 egin behar da; eta banakakoak edo bereziak badira, berriz, kide bakoitzak aurreko eragiketa egin behar du, eta ondoren, emaitzen batuketara egin.

Zozketa

Tokiak zozketa bidez esleituko dira maiatzaren 18an. Barakaldoko Udaleko Bilkura aretoan, 10:00etan, zenbaki bat aterako da jaso diren eskabide guztien artetik, eta ateratako zenbakitik abiatuta osatuko dira eskaintzen diren txanda eta zentroetarako onartutako zerrendak.

Zozketaren emaitza Barakaldoko Udalaren web orrian jakinaraziko da, umea onartua izan den ala ez adieraziz. Onartua izatekotan, udalekua zein txandatan/txandetan (bi aukeratuz gero) eta zein ikastegitan nahiz ikastegietan egingo duen/dituen jakinaraziko zaio.

Ordainketak

Kolonian onartua izanez gero, familiari ordainketa gutuna bidaliko zaio, eta bertan erantsirik, matrikularen ordainketa egiteko kontu zenbakia, datuak egiaztatutakoan ordaindu beharreko prezioa eta noiz ordaindu behar duen.

Aipatu epean ordaindu eta abonu-agiria aurkeztu ez bada, plazari uko egin zaiola uler-tuko da, beraz, libre geratu den plaza itxaron zerrendako batek beteko du, aukeraren berri eman ondoren.

Ez da matrikularen dirua itzuliko, justifikatutako gaixotasunen bat ez bada.

Informazio saioa

Ekainaren 26an informazio bilera egingo da Clara Campoamor Zentro Zibikoan, 18:30ean, Alkartu-Arteagabeitian izen emandako seme-alaben familientzat, eta, 19:30ean, El Pilarreko familientzat. Ekainaren 27an, Gurutzetako Zentro Zibikoan informazio bilera egingo da Juan Ramon Jimenezen familientzat, 18:30ean.

Koloniak elkarbizitarako eta baloreak ikasteko espazioak dira, eta horregatik bizikidetzaz eta lankidetzaz arauen mende egon behar dute.

Horrenbestez, parte hartzen duten umeetako batek arauak betetzen ez baditu, koloniatik kanporatua izan daiteke.

